



# **EBAZPENA,**

**LANBIDE HEZIKETAKO ETA**

**ETENGABEKO IKASKUNTZAKO**

**SAILBURUORDEARENA,**

**URRUTIKO OINARRIZKO**

**HEZKUNTZAKO IKASTETXEKO (UOHI)**

**2011/2012 IKASTURTEAREN**

**HASIERARI BURUZKOA**



## EBAZPENA, LANBIDE HEZIKETAKO ETA ETENGABEKO IKASKUNTZAKO SAILBURUORDEARENA, URRUTIKO OINARRIZKO HEZKUNTZAKO IKASTETXEKO (UOHI) 2011/2012 IKASTURTEAREN HASIERARI BURUZKOA.

Urrutiko Oinarrizko Hezkuntzako Ikastetxearen (UOHI) helburua helduei urrutiko hezkuntzaren bidez oinarrizko prestakuntzako irakaskuntzak eskaintzea da, Euskal Autonomi Erkidegoan helduentzat finkatutako berariazko curriculumaren arabera (curriculum hori 2008ko urriaren 31ko Aginduaren bidez ezarri zen). Era berean, arrazoi justifikatuak direla medio normal eskolatu ezin daitezkeen haurrei edo gazteei ere eskainiko zaizkie irakaskuntza horiek.

Ebazpen honen bidez, UOHiren antolaketa eta funtzionamendurako berariazko arauak zehaztu eta finkatu nahi dira. Arau horiek Lanbide Heziketako eta Etengabeko Ikaskuntzako sailburuordeak Helduen Hezkuntzako ikastetxe publikoetan 2011/2012 ikasturtearen hasierari buruz emandako Ebazpena osatuko dute. Ebazpen horretan xedatutakoa UOHiek ere bete beharko du, jarraian aipatzen ditugun puntuetan izan ezik eta behar diren egokitzapenak eginda, kontuan hartuta kasu honetan ez dela oinarrian zuzeneko ikaskuntza:

### 1.- IKASTETXEAREN ORDUTEGIA

Ikastetxea lan-egun guztietan goizez eta arratsaldez egongo da irekita, ostiraletan izan ezik, orduan goizez bakarrik irekiko baita. Goizeko ordutegia 9etatik 14etara izango da eta arratsaldekoa, berriz, 16etatik 21etara.

### 2.- TUTORETZAK

Banakako eta taldeko tutoretzak ordutegi finkoa izango dute eta ikasleek ordutegi hori zein den jakingo dute. Ikasturte-hasieran ordutegi hori jakitera emango da; bertan, arlo eta modulu bakoitzeko banakako eta taldeko tutoretzen eguna eta ordua, taldeko tutoretzen jarduera-programa, ebaluazioen egutegia eta ikasleentzat interesgarria izan daitekeen bestelako informazioa adieraziko dira.

Arlo eta modulu bakoitzerako gutxienez bi taldeko tutoretza eta banakako tutoretza bat egingo dira hamabost egunero; gainerakoak, arlo bakoitzaren ordutegiaren arabera banatuko dira. Gradu eta modulu bakoitzari dagozkion taldeko tutoretzak elkarrekin taldekatzen saiatu behar da, ikasleei tutoretza horietara joatea errazteko.



### 3.- IRAKASLEEN ASTEKO LAN-JARDUNA

#### 3.1.- Eskola-orduak

Abuztuaren 2ko 30/1984 Legeak —funtzio publikoaren erreformarako neurriei buruzkoak— xedatzen duenarekin bat etorritik, dedikazio-araubide bakarra egongo da, gainerako funtzionario publikoentzat izaera orokorrarekin ezarritako bera.

Lan-jardun horretatik, astean 30 ordu zuzenean ikastetxeari dedikatzekoak izango dira. Dedikazio horretatik, astean 23 ordu ikastetxean emango dira eta horietatik 18 eskolak ematera zuzenduko dira. Irakasleek ezingo dute astean 18 ordu baino gehiagoz eman eskola.

Materialak prestatzeko orduak eskola-ordu gisa kontabilizatuko dira.

Irakasleek giza talde jakinetako taldeei eskola emateko egiten dituzten lekualdatzeak ikastetxean emateko orduen barruan sartzen dira. Ikastetxean eman beharreko gainerako orduak (gehienez ere 23) honela banatuko dira, irakasle bakoitzak duen karguaren arabera:

- Astean ordu 1 prestakuntza-jardueretarako
- Astean ordu 1 sailak eta graduak didaktikoki koordinatzeko
- Astean 2 ordu giza talde jakinetako tutoreekin koordinazioa lantzeko
- Astean ordu 1 ikastetxearen antolaketa eta funtzionamendurako tresnak eratzeko

#### 3.2.- Zuzendaritza-taldea

Zuzendaritza-taldea zuzendariak, ikasketa-burua eta idazkariak osatuko dute, eta ordu-kopuru jakin bat izango du. Ordu horiek taldekideen artean banatuko dituzte ikastetxeko Antolamendu eta Jarduera Araudiak ezartzen duena betez, baldin eta Ikuskaritzaren legezotasun-txostena badu.

Ikastetxean matrikulatutako ikasle ofizialak kontuan hartuz, zuzendaritza-taldeak ikasturte honetan honako murrizketak izango dituzte beraien eskola-orduetan:

#### ZUZENDARITZA-KARGUEN ESKOLA-ORDUEN MURRIZKETA

IKASLE-KOPURUA	ESKOLA-ORDUEN MURRIZKETA
0-400	15
400-800	18
1.500etik gora	24



Hiru Lurrealde Historikoetako ikastetxeetako zuzendariak aste guztietako ostegunak gorde beharko dituzte, bileraren baterako deia egiten bazaie-edo, bilera horretara joan ahal izateko.

Vitoria-Gasteizen, 2011ko uztailaren 19an

**JOSÉ CARLOS CRESPO VELASCO**  
Lanbide Heziketako eta Etengabeko Ikaskuntzako sailburuordea